

# FUNTZIONAMENDU-ARAUAK



## JAIOPERRIEN UNITATEA TXAGORRITXU OSPITALEA

**IZENA:**

**SEHASKA ZK.:**

BEHEKO SOLAIRUA

Txagorritxuko Ospitalearen telefonoa: 945-007000  
Jaioberrien Unitateko telefono zuzena: 945-007211

### AURKEZPENA

Zuen semea/alaba Jaioberrien Unitatean sartu berri dugu. Arreta haurren eta familiaren zainketan jartzea da gure unitatearen helburua, eta gurasoak oinarrizko zainketen partaide egiten ditugu. Hori dela eta, gure unitatean, gurasoentzat 24 orduetan ATEAK IREKITA izaten dira, kanguru-metodoaren filosofia erabiltzen dugu eta zainketak haurren eta familiaren garapenera bideratuta daude.

Ez zaitetzte beldurtu semea/alaba inkubagailuan, biluzik eta "kablez" eta monitorea inguratuta ikusten duzuenean. Neurri horiek beharrezkoak dira haurren tratamendurako.

Pediatrak eta erizainak arduratzen dira zuen semearen/alabaren eguneroko zainketez, eta zalantzarik izanez gero, haiek argituko dizkizute.



### NOLA PARTE HARTU ZUEN SEMEAREN/ALABAREN ZAINKETAN

Erizainek zuen semearen/alabaren zainketan parte hartzen lagunduko dizute (elikadura, higiena, kanguru-metodoa...)

### ELIKADURA:

Jaioberrien unitatean hiru orduz behin izaten dira esne-hartualdiak.

**10h-13h-16h-19h**

**21<sup>45</sup>h-1h-4h-7h**



Haurrari ezin badiozu zuzenean bularra eman, berriaz prestatutako gela batean atera ahal izango duzu esnea: edoskitze-gelan.

### UNITATEAN ZAUDETEN BITARTEAN BETE BEHARREKO ARAU OROKORRAK

- Ingresatutako haurren infekzioak saihesteko, behar-beharrezkoa da garbitasuna. Unitatean sartu aurretik, eskuak garbitu beharko dituzue eta mantal berdea jarri. Familia bakoitzak armairu bat izango du norberaren gauzak eta mantalak gordetzeko.
- Gurasoetako batek beherakoa, sukarra, katarroa edo beste gaixotasun kutsakorren bat izanez gero, jakinarazi zuen semeaz/alabaz arduratzen den taldeari, zer neurri hartu behar duzuen esan diezazueten.
- Unitatearen barruan zaudetenean, zuen semearen/alabaren ondoan egon behar duzue, unitateko beste leku batzuetara joan gabe. Erizainak kontrakorik esan ezean, uki dezakezue haurra.
- Zuen semea/alaba inkubagailuan badago, itxaron erizainen batek haurra atera arte.
- Ezin da ez telefono mugikorrik ez beste gailu elektronikorik erabili.

### MEDIKUEN INFORMAZIOA

Zuen semeaz/alabaz arduratzen den pediatrak astelehenetik ostiralera, 13:00etatik 14:00etara emango du informazioa. Larunbat, igande eta jaiegunetan kasu larrietan baino ez da informaziorik emango.

### BISITA-ORDUTEGIA: Gurasoak eta laguntzaileak

Goizez: 14:15 - 14:30

Arratsaldez: 20:15 - 20:30

Unitatean sartzeko, sakatu txirrina eta bultzatu atea.

Ezin dira sartu:

**12 urtetik beherako haurrak.**

**Gaixotasunen bat (gaixotasun kutsakorra, katarroa, beherakoa...) duten laguntzaileak.**

Banan-banan sartuko dira, gurasoren bat bertan dela beti, eta ezin izango dituzte haurrak ukitu.